



## ESTALDURAK

### URAK ERAGINDAKO KALTEAK

Norberaren edo hirugarrenen instalazioetatik etorritako kalteak	✓
Lokalizatzeko eta konpontzeko gastuak	✓
Aurkitzea eta konpontzea ezbeharririk gabe	400 € ezbehar bakoitzeko
Buxadurak	300 € 1 ezbehar urte bakoitzeko
Barneko eta kanpoko iragazketak	✓
Gehiegizko kontsumoa ur- edo elektrizitate-fakturetan ezbeharraren ondoren	1.500 €

### SUTEA, TXIMISTA ETA LEHERKETA

Suteek edo leherketek eragindako kalte eta galera materialak	✓
Norberaren instalazioetatik edo hirugarren batzuenetatik etorritako keak eragindako kalteak	✓

### BEIRAK HAUSTEA

Kristalak, beirak, ispiluak, loza sanitarioa (edukitzailea), bitrozeramika (edukia), kristalaren ordeko plastikoak eta metakrilatoak, marmolak eta granitoak (zoru eta paretetako ez bestelakoak) istripuz puskatzea	3.000 € ezbehar bakoitzeko
--	----------------------------

### LAPURRETA, ESPOLIAZIOA ETA EBASKETA

Edukia lapurtzea	✓
Ondasun higigarriak ebastea (% 5 edukiaren gain)	✓
Edukitzailan egindako lapurretak sortutako kalteak	✓
Bitxien lapurreta edo espoliazioa	3.000 €
Objektu artistikoen, historikoen eta ile-larruen lapurreta eta espoliazioa (gehienez ere 3000 € deklaraturako objektuko)	✓
Eskudiruaren lapurreta edo espoliazioa (etxean)	500 €
Atrakoa (espoliazioa kanpoan)	Eskudirua 150 € Gauza pertsonalak 600 €
Hotel edo apartamentuaren barnean eskudirua lapurtzea	150 €
Hotel edo apartamentuaren barnean kutxa gotorretik bitxiak lapurtzea	600 €
Sarrailak aldatzea lapurretagatik, giltzen espoliazio edo galeragatik	500 €
Kreditu-txartelen maulazko erabilera	300 €
Telefono mugikorraren maulazko erabilera lapurreta edo espoliazioaren ondoren	24 ordura arte
Enplegatuen desleialtasuna (100 €-ko frankizia)	1.500 €

### KALTE ELEKTRIKOAK

Kalteak aparatu elektrikoetan edo instalazio elektrikoan	✓
Hotz-ganberetako salgaiak hondatzea	✓

### ERAGILE ATMOSFERIKOEN ERAGINDAKO KALTEAK

Euria, harria eta elurra	✓
Haizeak	80 km/h-ko abiadura baino +

### ERANTZUKIZUN ZIBILA

Familiarena eta higiezinarena	300.000 €
-------------------------------	-----------

### DEFENTSA JURIDIKOA

Hirugarrenek eragindako kalteen erreklamazioa	6.000 €
Telefono bidezko orientazio juridikoa	✓

### ETXE SUPERBABESTUA

Edukitzailak balio estetikoak galtzea	2.000 €
Partzuergoaren konturako arriskuak (lurrikarak, ziklogenesiak, etab.)	✓

### DELUXE LAGUNTZA ETA IZAPIDETZEA

Bizitzeko ezintasuna (Behin-behineko ostatua+Jatetxea)	Hotela: 100 € pertsonako eta eguneko. Gehienez 3.000 €
Altzariak	1.500 €
Altzariak lekuz aldatzea eta etxebizitza alokatzea (urtebete)	Edukitzailaren % 15 edo Edukiaren % 100
Esku-trebea	1 erabilera urteko. 2 ordu gehienez

## Zure etxeko aseguruaren abantailak:



**BERRIA Familiaren Er.Zib.:** Mugikortasun pertsonaleko ibilgailuak (bizikleta elektrikoak, patinete elektrikoak, etab.) **noizean behin** erabiltzearen ondorioz hirugarren bati eragindako gorputzeko kalteak edo kalte materialak zabaltzen ditugu.



**BERRIA Ezbehar Digitala:** Etxean izandako ezbeharrari buruzko informazio guztia eta jarraipena klik bakar batekin zure Lineako Bankuan.



Etxebizitza digitala.



24 orduko laguntza eta izapidetze pertsonala.

## Asegurua aukerako ESTALDUREKIN osa dezakezu

Urteko kuota

<b>BERRIA</b> Mugikortasun Pertsonaleko ibilgailuaren Er.....	<b>15 €</b>
Kontsumitzailearen defentsa juridikoa .....	<b>9,40 €</b>
Defentsa juridiko zabaldua .....	<b>9,40 €</b>
Etxetresna elektrikoaren laguntza (piezekin edo piezarik gabe) ....	<b>10 €-tik hasita</b>
Etxea PLUS Laguntza.....	<b>40 €</b>
Edukiak balio estetikoak galtzea (muga 1.000 €).....	<b>18 €-tik hasita</b>
(muga 2.000 €).....	<b>27 €-tik hasita</b>

Aukerako estalduraren bat gehitu nahi baduzu, deitu **901 100 200** telefonora, edo joan **LABORAL Kutxaren** bulegoetara.



## Etxeko aseguruak

### Aseguru-produktuari buruzko informazio-dokumentua

SEGUROS LAGUN ARO S.A., Espainian erregistratutako aseguru-entitatea (C-0572)

Dokumentu honetan aseguruaren alderdi aipagarrienak laburbiltzen dira, eta, beraz, eskaintzen den informazioa ez da osoa. Informazio osoa aseguruaren proiektuan eta kontratuaren Baldintza Partikular eta Orokorretan jasoko da.

### Zertan datza aseguru mota hau?

Kontratututako estalduren arabera bermatuko dira (konponduz edo kalte-ordaina emanaz) aseguratutako etxebizitzak eta izaera eta sarbide pribatiboko haren gelek izan ditzaketen ondare-kalteak (bai higiezinarenak bai haren barruan dauden ondasunenak), bai eta hari dagozkion zona komun zati proportzionala ere. Etxebizitzak berak edo bertan bizi diren pertsonak hirugarrenei egin diezazkiekeen kalteak (materialak nahiz pertsonalak) ere estali ahal izango ditu, bai eta jasandako kalteen erreklamazioa eta Aseguratuaren defentsa juridikoa ere. Aldi berean, Aseguratuaren esku jarriko dira profesionalen eta gremioen sare zabal baten zerbitzuak (Etxeko Laguntza: Aseguratuak bere gain hartuko du horren kostua).



#### Zer aseguratzen da?

##### Norberaren kalteak:

- ✓ Sutea.
- ✓ Arrisku osagarriak:
  - Bandalismozko ekintzak, Eragile atmosferikoak, Tresna elektrikoek eta horien osagarriek izandako kalteak, Hotz-ganberetako salgaiak hondatzea eta Keak eragindako kalteak.
- ✓ Urak sortutako kalteak:
  - Lokalizazio-gastuak ezbeharrarekin / ezbeharrak gabe, Barneko eta kanpoko iragazketak, Buxadurak libratzea, Gehiegizko kontsumoa ur- edo elektrizitate-fakturretan.
- ✓ Lapurreta eta espoliazioa eta/edo lapurretak sortutako kalteak:
  - Eskudirua eta joiak etxean, kanpoaldeko atrakoa, kreditu-txartelen maulazko erabilera, sarrailak ordeztzea.
- ✓ Higiezinak balio estetikoa galtzea (1.000 / 2.000 / 3.000 / 6.000€).
- ✓ Beira-plakak, kristalak, marmolak, granitoak eta metakrilatoak haustea (3.000 € / zenbateko aseguruaren % 100).
- ✓ Etxean bizitzeko ezintasuna.
- ✓ Lorategiak hondatzea: (2.000/3.000/6.000 €).
- ✓ Ezohiko arriskuak (Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoa).

##### Erantzukizun zibila:

- ✓ Erantzukizun zibil pribatua: (150.000/300.000/600.000€).
- ✓ Higiezinaren erantzukizun zibila: (150.000 / 300.000 / 600.000€).
- ✓ Defentsa Juridikoa eta Kalteen Erreklamazioa.

##### Etxeko laguntza:

- ✓ Etxeko laguntza emateko zerbitzuak (iturgintza, igeltserotza, etab.).
- ✓ Urgentziazko zerbitzu bereziak (sarrailagintza, elektrizitatea, etab.).

##### Aukerako estaldurak:

- Altzariak balio estetikoa galtzea: (1.000/2.000/3.000/6.000€).
- Esku-trebea zerbitzua.
- Kontsumitzailearen defentsa juridikoa.
- Defentsa juridiko zabaldua.
- Asistentzia PLUS.
- Etxetresna elektrikoaren laguntza (piezekin edo piezarik gabe).



#### Zer ez dago aseguratua?

##### Honako arrazoi hauek tarteko sortutako edo eragindako kalte-galerak:

- ✗ Aseguratuaren fede gaiztoa, doloa edo erru larria.
- ✗ Lur-asentamenduak, lur-hondoratzeak, luiziak, lur-jausiak edo lur-biguntzeak.
- ✗ Bizigarritasun-zedularik gabeko etxebizitzak.
- ✗ Merkataritzako eta/edo industriako jarduerak egiteko erabiltzen diren etxebizitzak.
- ✗ Gerra, inbasioa, etsaigoak, errebolta, altxamendua, kolpe militarra, botere-usurpazioa edo terrorismoa.
- ✗ Kutsu politikoa edo soziala duten egintzak, matxinadak eta jende arteko iskanbilak eta kalapitak, bake-garaiko neurri edo indar militarrek.
- ✗ Eraikuntzako akatsak edo bizioak.
- ✗ Poliza kontratatu aurreko kalteak.
- ✗ Eraikinaren egiturari, teilatuari edo trenkadei eragiten dieten higiezinaren egindako eraikuntzako, berreraikuntza, eraberritze, konpontze edo eraldatzeko lanak.
- ✗ Etxebizitza kontserbazio-egoera normalean egoteko beharrezkoak diren konponketak ez egitea.
- ✗ Kausa ohiz kanpoko edo katastrofikoak eta/edo Aseguruaren Konpentsazio Partzuergoak estaltzen dituen gertaera edo fenomenoak, edo Estatuko Gobernuak "katastrofe edo hondamen nazional" gisa kalifikatzen dituenak.



### Badago murrizketarik estaldurari dagokionez?

#### Kontratatzeko mugak:

- ! Gorabeheraren unean kapital aseguratua % 10 baino gutxiago bada, kalte-ordaina ehuneko berarekin murriztuko da.
- ! 1.500 eurotik gorako unitate-balioa duten ondasunak garajeetan edo garaje pribatiboetan.
- ! 10 urte baino gehiagoko antzinatasuna duten ekipamendu elektronikoak Edukiari egindako kalte elektrikoaren estalduretarako, Etxetresna elektrikoaren laguntza (piezekin edo piezarik gabe) eta Ondasun hoztuetan gertatutako kalteak (barne-matxura batetik eratorritakoak).

#### Muga nagusiak honako hauek dira:

- ! Defentsa Juridikoa eta Kalteen Erreklamazioa: 6.000 €.
- ! Hoztutako ondasunak 300 €.
- ! Lokalizazio-gastuak (urak sortutako kalterik gabe) 400 €.
- ! Eskudiruaren lapurreta etxean 500 €.
- ! Atrakoa kanpoan: 150/300 € eskudirutan eta 600/1.000 € ondasun pertsonaletan.
- ! Etxean bizitzeko ezintasuna (Ondasun higigarrien zenbateko aseguruaren % 100 edo higiezinaren kapitalaren % 15. 1 urte gehienez).

#### Bestelako mugak:

- ! Buxadurak libratzea: 300 €-ko muga eta 1 erabilera/urteko.
- ! Esku-trebea Optimoa Zerbitzua: 1 zerbitzu/urteko, 2 ordu.
- ! Esku-trebea Esklusiboa Zerbitzua: 2 zerbitzu/urteko, 3 ordu.
- ! Asistentzia PLUS: 3 ordu zerbitzuko, 2 zerbitzu/urteko.
- ! Etxetresna elektrikoaren laguntza (piezekin edo piezarik gabe): 3 ordu zerbitzuko, 3 zerbitzu/urteko.
- ! Eragile atmosferikoak: 80 km/h baino gehiagoko haizeak eta orduko 40 l/m<sup>2</sup>-tik gorako harriabarrak eta euriak eragindako kalteak.
- ! Uraren eta argindarraren normaletik gorako kontsumoa ezbeharraren ondoren (1.500 €).



### Non nago estalita?

- ✓ Ondare-kalteak eta Etxeko Laguntza: Espainiako lurraldean dauden etxebizitzak.
- ✓ Erantzukizun zibila: Espainiako lurraldean gertatutako eta eragindako kalteak. Aseguratuak noizbehinka atzerrira joan-etorriak eginez gero (gehienez ere 3 hilabetekoak), estaldura-eremua mundu osorako izango da, Estatu Batuetan, Kanadan eta Mexikon izan ezik.



### Zein dira nire betebeharrak?

- Aseguruaren urteko prezioa kontratuan ezarritako baldintzetan ordaintzea.
- Kontratua formalizatu aurretik eta haren indarraldian, arriskuaren balorazioan eragina izan dezaketen inguruabar guztien berri ematea Seguros Lagun Arori.
- Istripua izan dela jakin eta gehienez ere zazpi eguneko epean horren berri ematea.
- Erabilgarri dauden baliabideak erabiltzea, gorabeheraren ondorioak arintzeko.
- Asegurua ezingo da izan Aseguratua bidegabe aberasteko bitartekoa.



### Noiz eta non egin behar ditut ordainketak?

Kontratua formalizatzeko unean eta haren urteroko berritze-datan egingo da ordainketa. Baldintza partikularretan jasotakoaren arabera egin beharko da, eta bankuan helbideratuz edo zenbatekoa bitartekariari entregatuz egin ahal izango da.



### Noiz hasi eta amaitzen da estaldura?

Baldintza Partikularretan adierazitako egunean eta orduan hasi eta amaituko da aseguru. Ondoz ondoko berritzeen ondoren, ordaindu den aseguru-aldia bukatzen den egunean eta orduan amaituko da.



### Nola hutsaldu dezaket kontratua?

Jakinarazpen idatzia bidaliz, indarrean dagoen aseguru-aldia bukatu baino, gutxienez, hilabete bat lehenago.

Dokumentu honek ez du kontratu-baliorik aseguru-estaldurari buruzko ondorioei dagokienez. Prezio horiek orientagarriak dira eta 30 eguneko balioa dute. Hobari-egiaztagirien, hautatutako modalitatearen, hautatutako estalduren eta poliza gauzatzen den unean aplikatzen diren frankizien arabera alda daitezke. Gainera, Seguros Lagun Aro SAren arrisku-baimenak ere baldintzatuko du.

#### DBLO

Zure datuak SEGUROS LAGUN ARO S.A.k (IFZ: A-20079224) eta SEGUROS LAGUN ARO VIDA, S.A.k (IFZ: A-20182705) tratatuko dituzte, erantzukidetasun-erregimenean jokatzu. Biek Basurtuko Kaputxinoen kalea 6, 2.a 48013 Bilbo (Bizkaia) helbidean dute egoitza soziala, eta Seguros Lagun Aro Taldekoak dira. Helburua zuretzako aseguru-proiektu bat egitea da, zure eta Seguros Lagun Aroren arteko kontratu aurreko harremanen gauzatzean oinarrituta, eta, beharrezkoa bada, zure datuak diruzko betebeharrak betetzeari eta ez betetzeari buruzko fitxategietan kontrastatzeko zure ondare-kaudimena aztertzeke helburuarekin, kuotaren estimazio hurbilagoa egitea ahalbidetzen duen arrisku-analisia egiteko eta Seguros Lagun Arok duen interes legitimoan oinarrituta, aseguru-kontratua egin aurreko arrisku-balorazioa egin ahal izateko. Helburu horiek betetzeko beharrezkoa da zure identifikazio-datuak tratatzea, zurekin harremanetan jartzekoak eta Bizitza eta Istripuak produktuen kasuan –beharrezkoa balitz– zure osasun-datuak. Datu horiek SLA atxikita dagoen fitxategi komunei komunikatu ahal izango zaizkie, bai eta SLAren koaseguru- edo berraseguru-akordioak dituzten hirugarren entitateei ere.

Zure datuetan sartzeko, haiek zuzentzeko, ezabatzeko eta haiei aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzu, baita zure datuak eraman edo hemen aipatutako tratamendua mugatzekoak ere. Horretarako, eskaera helbide elektroniko honetara bidali behar duzu: [dpo@seguros lagunaro.com](mailto:dpo@seguros lagunaro.com). Zure datuen tratamenduari buruzko informazio gehigarria kontsulta dezakezu baldintza orokorretan edo pribatutasun-politikan, esteka honen bidez: [https://www.seguros lagunaro.com/corporativa/secciones/utilidades/politica\\_privacidad](https://www.seguros lagunaro.com/corporativa/secciones/utilidades/politica_privacidad).

#### BITARTEKARIA

Erregistro Administratibo Berezian ov-0072 gakoarekin inskribatutako Caja Laboral Bancaseguros SLU bankaseguruen operadore lotetsiaren bitartekaritzako aseguru. Erantzukizun zibila eta finantza-gaitasuna indarrean dagoen legediaren arabera estaliak. Arrisku-aseguratzaila Seguros Lagun Aro SA

#### KONTRATATU AURREKO INFORMAZIO-OHARRA

Hauek dira kontratu hau arautzen duten legeak eta xedapenak: Aseguru Kontratuen urriaren 8ko 50/1980 Legeak, Aseguru Etxeen eta Berraseguratzailen antolaketa, ikuskatze eta kaudimeneko uztailaren 14ko 20/2015 Legeak, haren Erregelamendua onartzen duen Aseguru etxeen eta berraseguratzailen antolaketa, ikuskatze eta kaudimeneko azaroaren 20ko 1060/2015 Errege Dekretuak, eta Xedapen hauek garatzeko gainerako araudiak, baita Baldintza Orokor hauek eta kontratu-aseguruaren Baldintza Partikularretan hitzartutakoak.

Erakunde aseguratzaila SEGUROS LAGUN ARO, S.A. da, eta egoitza sozial hau du: Basurtuko Kaputxinoak, 6-2. 48013 Bilbo. Bizkaia. Espainia. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatua, 186. liburukia, 36. folioa, BI 2483 orria - IFK: A-20079224. Aseguru eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren mendeko den aseguru-erakundearen Erregistroan C-572 gakoarekin..

Ekonomia eta Lehiakortasunerako Ministerioi Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiari dagokio haren jardura kontrolatzea eta gainbegiratzea.

#### NON ERREKLAMATU

Auzirik sortuz gero, Finantza-sistema Berritzeko Neurriei buruzko azaroaren 22ko 44/2002 Legearen 29. eta 30. artikuluekin bat, Finantza-erakundearen Bezeroarentzako Arreta-zerbitzu eta Sailei eta Bezeroaren Defendatzaileari buruzko martxoaren 11ko ECO/734/2004 Aginduarekin bat, eta ECC/2502/2012 agindua, azaroaren 16koa, Espainiako Bankuaren, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren eta Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren erreklamazio-zerbitzuei erreklamazioak aurkezteko prozedura arautzen duenarekin bat, hona jo dezake Aseguru Hartzaileak lehendabizi:

##### Bezeroentzako Arreta Zerbitzua

Capuchinos de Basurto, 6 -2  
48013 Bilbo  
[www.seguros lagunaro.com](http://www.seguros lagunaro.com)  
[atencioncliente@seguros lagunaro.com](mailto:atencioncliente@seguros lagunaro.com)

Bigarrenik, eta adostasun-ezak badirau, kanpoko esparruan, idatzia hona bidaliz:

##### Dirección General de Seguros y Fondos de Pensiones

Servicio de Reclamaciones  
Paseo de la Castellana, 44  
28046 Madrid